



GOITIOLTZA BTT ENDURO 2017 ARAUDIA

1. Art.: Definizioa

GOITIOLTZA ENDURO 2017; kirol jarduera honen irugarren edizio hau, martxa formatoan aurkeztua izango da. Hau horrela, tarteak ez dira Euskadiko Txirrindularitza Federazioko epaile eta kronometrataileengadik kontrolatuak ezta kronometratuak izango, baizik eta antolakuntzako kideengantik. Probak **KRONOMETRATUTAKO HIRU TARTE** edukiko ditu.

Proba Lezaman burutuko da, Goitioitza auzoan Uztailaren 8 an, Zapatua.

2. Art.: Antolatzailea

GOITIOLTZA BTT ENDURO 2017 BTT kirol jarduera bat da **ZORRIBIKE LEZAMAKO T.K.T.-k** sortua eta antolatua, Garaioltza 133 E, 48196 Lezamako (Bizkaia) Uribarri Topalekuan duena bere egoitza.

GOITIOLTZA BTT ENDURO 2017 Goitioitza Jai Batzordearen eta beste babesle babesarekin ere antolatzen da.

3. Art.: Izen emate eta zenbakien esleipena

Proba honetan parte hartu nahi duten guztiek, izen ematea www.zorribike.com atariaren bitartez egin beharko dute. **IZEN EMATE FITXAn** agertzen diren datu guztiak betetzea derrigorrezkoa izango da, baita ordainketa eginda edukitzea ere izen ematea baliozkoa izan dadin.

Tasa eta izen emate eskubideak horrela zehazten dira:

- 15 € Txirrindulari FEDERATUEK
- 15 € Txirrindulari EZ FEDERATUEK

La Caixa_ES62 2100 4867 8221 0016 4291

Partehartzaileek txirrindularitza federazio nazional batek igorritako eta UCIk onartutako txirrindularitza lizentziaren bat eduki behar dute. Naziarteko federazio bateko Txirrindulariren bat balego, esandako federazioan baimena eskatu beharko luke **GOITIOLTZA BTT ENDURO 2017** partehartzeko.

Federatua egon ezean, egun baterako lizentzia izapideak bete beharko ditu proba honetarako, izen ematearen prezioak barne hartzen duena.



Online izen emate epea, proba aurreko ostegunean itxiko da (2 egun lehenago). Online izen ematearen itxieraren ondoren, zapatuan (lasterketa egunean), soilik izango da posible izen ematea, bertan jarriko den Bulego Iraunkorrean eta online izen emateen prezioekin alderatuz 5€ko gehikuntza izango du. Izen emate hau, antolakuntzak finkatutako partehartzaileen mugara heldu ez denean posible izango da (100 partehartzaile).

Dorsalaren eskuratzea, lasterketa egunean bertan izango da Bulego Iraunkorrean.

Federatutako txirrindulariek derrigorrezkoa dute beraien lizentzia aurkeztea dortsala eskuratzeko. Halaber, txirrindulari federatuak nahiz ez federatuak 5€ fidantza utzi beharko dute dorsalaren eskuratzea ematen denean. Saioaren bukaeran diru hau itzuliko zaie partehartzaileei, Bulego Iraunkorrean dortsala bueltatzerakoan, antolakuntzak beste prozedura bat erabakitzen ez badu.

4. Art.: Mailak

GOITIOLTZA BTT ENDURO 2017 Federazio lizentzia duen edozein kirolariri irekia dago: Elite, Sub 23, Master 30, Master 40-50-60, Kadete, Junior, Emakumezko Elitea eta zikloturistak, indarrean daukan lizentzian agertzen den kategoriaren arabera.

Era berean, martxa formatoan aurkezturiko kirol ekimena izanik, lizentziarik ez duen txirrindulari orok parte hartu ahalko du, betiere adin nagusigoa bada (18 urtetik gorakoa). Hauek ZIKLOTURISTAK mailan kokatuko dira.

kirolarien bukaerako erregistroa egingo da, denbora eta kategorien arabera ordenatuko dena, bakoitzari dagokion konpentsasioa azalduz.

Gogorarazten da protokoloaren araberako sari banaketaren zeremonian egotea derrigorrezkoa izango dela, talde edo klubaren uniformetasun ofizialarekin.

5. Art.: Bizikletak

Parte hartzaile bakoitzak bizikleta bakará erabili ahalko du, **GOITIOLTZA BTT ENDURO 2017** hasi eta bukatu egingo du berorrekin. Proban zehar ez da onartuko kanpoko asistentzia mekanikorik. Gomendagarria da txirrindulari bakoitzak probarako egoki ikusten dituen ordezkotako pieza eta erramintak eramatea.

Antolakuntzak eskubidea izango du bizikleten egoera baieztatzeko; araudia betetzen dela frogatzeko, egoera txarrean dauden bizikleten erabilera ez baimentzeko edo onarpenaren ostean bizikletako elementuei araudiarekin bat ez datozen aldaketak egin dizkien parte hartzailea kanporatzeko helburuarekin.

Kanpo laguntza edo lotuneetan erremonteak izan dituzten txirrindulariak zigortua izango dira.



6. Art.: Ekipazioa

Kasko gogorraren erabilera derrigorrezkoa izango da bai kronometraturiko tartetean, zein lotura guneetan; era berean, gomendagarria da eskularruak, belaunetakoak eta hidratazio motxila, barruan oinarrizko erramintekin, eramatea.

Gomendatzen da kasko integrala erabiltzea kronometraturiko tartetean. Mota bitetako kaskoak erabiltzea onartzen denez, hori erabakitzen duen parte hartzaileak proba osoan zehar eraman beharko ditu aipaturiko kaskoak.

7. Art.: Dortsalak

Dortsalak izen emate ordenaren arabera emango dira. Antolakuntzak berarentzat gordeko ditu irteerako hasierako zenbakiak beronek ezarritako irizpideen arabera banatzeko.

Dortsalak irakurgarri egongo diren tokian jarri beharko dira, momentu oro bertan azaltzen den publizitatea errespetatuz.

Dortsalak ezingo dira inondik inora manipulatu, ez euren geometria ezta heltzeko moduan ere; horrela ez izatekotan, antolakuntzak eskubidea izango du dortsalak itzultzerakoan aurrez jarritako 5€-ko fidantza ez itzultzeko.

8. Art.: Probaren programa

Dortsalak Bulego Iraunkorrean jaso ahalko dira probaren egunean bertan, zapatua 8, 12:00etatik aurrera, proba hasi baino (14:15) 15 minutu lehenagora arte.

Egunak ondorengo ordutegia jarraituko du:

- 12:00 etan. Bulego Iraunkorraren irekiera
- 14:30 etan. Irteera
- 15:00 etan. 1^a Txanda hasiera (E.Z-1).
- 15:50 etan. 2^a Txanda hasiera (E.Z-2).
- 16:40 etan. 3^a Txanda hasiera (E.Z-3)
- 19:00 etan. Bukaera eta sari banaketa..



Partehartzaileak paddock gunean egon beharko dute irteera baino 30 minutu lehenago (14:30ean). Bertan, probaren nondik norakoa azaltzen den briefing-a banatuko zaio eta IRTEERA MARRA arte lagunduko zaio.

Irteera: Lehenengo txandaren irteera inskripzio ordenaren arabera izango da, txirindulari bakoitzaren arteko tartea 30 segundukoa izango delarik. Bigarren txandaren irteera lehenengoa bezala izango da; hau da, inskripzio ordenaren arabera eta 30 segunduko tartea mantenduz.

Helmuga: Partehartzaile guztiek zeharkatu beharko dute helmuga marra probako bigarren txandara sarrera izateko.

Proba Uztea: helmuga marra gurutzatu aurretik proba uzten duten partehartzaileek antolakuntza taldeari jakinarazi beharko diote Bulego Iraunkorrea; era beran, dortsala entregatu beharko dute.

9. Art.: Zirkuitua

Enduro formatuko probetako zirkuituak mendian egiten diren kronometraturiko tartek dira. Batez ere desnibel negatiboko tartek izan arren, ibilbidearen gune batzuetan pedalei eragin beharko zaie desnibel positiboa gainditzeko. Izan ere, diziplina honetan jeitsieraren teknika eta pedalei eragitearen erresistentzia fisikoa uztertzen baitira.

Zirkuituak irteera eta helmugan seinalizatuak egongo dira; ere berean, gune batzuk markaturik egon daitezke balizaje zinta eta arreta edo norabide seinaleen bidez.

Antolakuntzak eskubidea izango du hasieran diseinaturiko ibilbidea azken unean moldatzeko arrazoi ezberdinak tarteko. Beti ere, tarte bakoitzeko irteera baino lehen abisatuz eta ibilbide berria modu egokian markatuz.

10. Art.: Bukaerako ranking orokorra

Txanda bakoitzeko denboren gehiketak, penalizazioak barne, ezarriko du probaren bukaerako erregistro orokorra.

GOITIOLTZA BTT ENDURO 2017 bukaerako ranking-a eskuratu ahal izateko txanda bakoitzean izandako denborak gehituko dira eta ranking SCRATCH bakarra egongo da: Elite eta Sub 23.-entzat, beste bat Junior eta Kadete kategorientzat, beste bat Master kategoriako partehartzaileentzat eta azkenik, bakarra ere, zikloturista kategoriarentzat. Emakumezkoen kategorian probaren bukaerako erregistro orokor bakarra egingo da. Sari banaketari dagokionez, honela ezarriko da:



- ELITE/SUB'23 (scratch) -EMAKUMEZKO ELITEA (orokorra) -ZIKLOTURISTAK (orokorra)

1º_Sailkatua
2º_Sailkatua
3º_Sailkatua

1º_Sailkatua
2º_Sailkatua
3º_Sailkatua

1º_Sailkatua
2º_Sailkatua
3º_Sailkatua

- JUNIOR/KADETE (scratch)

- MASTER30/40/50 (scratch)

1º_Sailkatua
2º_Sailkatua
3º_Sailkatua

1º_Sailkatua
2º_Sailkatua
3º_Sailkatua

11. Art.: Konpentsasio ekonomikoak

Hauek izango dira emango diren zenbatekoak:

- Produktu sorta ELITE/SUB'23-entzat (scratch).
- Produktu sorta EMAKUMEZKO ELITE-entzat (orokorra)
- Opari sorta JUNIOR/KADETE-entzat (scratch)
- Produktu sorta MASTER 30/40/50-entzat (scratch)
- Produktu sorta ZIKLOTURISTE-entzat (scratch).

OHARRA: Antolakuntzak eskubidea izango du probaren egunean bertan diru sari berezia emateko, horrela ikusiko balitz, proba honetan nabarmendu den herriko txirrindulariari.

12. Art.: Zigorrak

Zigor hauek erreferentzialak dira eta antolakuntzak onetsiak izango dira.

11.1. Enduro formatoko proban kasko gogorra ez eramatea: IRTEERA DEBEKATUA

11.2. Denbora murriztu asmoz antolakuntzak markaturiko ibilbidea ez jarraitzea: PROBATIK BEREHALA DESKALIFIKATZEA.

11.3. Antlakuntzako kideek esandakoei kasurik ez egitea: PROBATIK BEREHALA DESKALIFIKATZEA.

11.4. Beste partehartzaileak, antolakuntza taldekoak, komunikabide edo ikusleak iraindu edo gaizki esatea: PROBATIK BEREHALA DESKALIFIKATZEA.



11.5. Antolakuntzak Eskubidea izango du, beharrezko den kasuetan, partehartzea ukatzeko eta inskripzioan emandako diru aurrerakina ez itzultzeko.

13. Art.: Probaren etetea

Egoerak hala eskatuz gero, antolakuntzak eskubidea izango du proba bertan behera uzteko: esaterako, antolakuntzatik kanpo dauden ezustekoen kasuan, dagokion autoritatearen agindu penan, eta meteorologia fenomenoek laguntzen ez duten kasuetan. Kasu horretan ez da inskripzioetan emandako dirua itzuliko, eta ez da ere partehartzaileen gastuen (mugikortasuna, ostatu hartzea) kargu egingo.

14. Art.: Ingurumena

Mountain bike mendian, ingurumenarekin harreman zuzenean, gauzatzen den kirol eta aisi jarduera da, guztion ardura da kirol honek ingurumenean eragin dezakeen talka ahalik txikiena izatea.

Horregatik, lehiaketa garatzen den eszenatokiaren balio ekologiko altua ikusirik, bai partehartzaileek zein antolakuntzako kideek ingurumen naturala babesteko ahalegina egin behar dute; horretarako, honako errespetuzko jarrerak bereganatuz:

- Ahalik eta zabor gutxien sortu, eta sortzekotan horretarako egokituriko tokietara bota.
- Oinezkoak errespetatu.
- Mendian, kontua izan animaliekin.
- Mugaturiko ibilbidetik ez atera.
- Jabetza pribatuetan ez sartu.
- Bizikletaren ordezkoiak edo olioak edonon jaurti ez dela ziurtatu.
- Ez kanpatu modu librean.

15. Art.: Onarpena

Antolakuntzak ezarritako araudia eta baldintzak onartzen ditut. Nire jardunaren arduradun bakarra ni neu izanik. Arriskuak eta sor daitezken egoerak neure gain hartzen ditut, nahiz eta hirugarrenen eskutik etorri, **GOITIOLTZA BTT ENDURO 2017** partehartzaile naizen aldetik. Guzti horregatik, Zorribike T.K.T, Lezamako Udala, Goitioltzako jai Batzordea eta edozein beste antolatzaile/babesle proban gerta daiteken istripu, lesio edo ezbeharren arduratik kanpo geratzen dira.

Araudi honen inguruko zalantza edo argibiderik nahi izatekotan zorribike@zorribike.com helbide elektronikora idatz dezakezu.